

www.noaiaa.com
N **u** **!**



Ez Dok Amairu eta
Jexur Artze gogoan


KORRIKA



**Korrika etorri,
Korrika joan**

LOURDES LARRAÑAGA

estetika zentroa



Iruizku kalea, 12-behea Telf: 943 36 28 87

- Gorputz perfektu baterako edertasun tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak eta dieta pertsonalizatuak
- Depilazioa laser-medikuarekin

n l. Fl r s l n

n k t k m rtz l
t
Em r s t k z r tzu k

- h lkul trtz
- u lzt t
- G rr l r
- F n ntz z r tzu k

J s n h uzun nf rm z
zur tx n rt n.

T lf 7 7 1 77

✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen horniketa eta nekazari lanerako behar diren produktuak: ongarriak, fitosanitarioak, tresnak, baratzantza, haziak, patata, e.a.

✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Artoa, txakolina, sagardia, zainzuriak, piperrak, babarrunak

✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu eta txori jana



BETIKO "SINDIKATVA" ORAIN BERRITVA, JENERO GEHIAGOREKIN

Ugarte Industria dea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: alkartasuna@foae.org

Txirrikitutik



Antton Elizegi, 1970. hamarkada, Aginaga

Udal fototeka

Aginagak azken urte hauetan aldaketa ugari izan ditu. Batetik, Ainoiz baino etxe gehiago eraiki dira aldi berean; ikusi besterik ez dago Elutx aldean egindako mordoa. Eta bestetik, aginagatarrak hainbestean aldarrikatutako frontoia egin du Udalak erdi-erdian; Ariztitxo frontoia eta inguruko plaza berria, alegia.

Izugarri aldatu da Aginaga denbora gutxian. Eta zalantzarik gabe aldaketa nabarmena, bertako plazan gertatutakoa da. Urte beteren buruan gune hau erabat aldatu da, 1970. hamarkadan Antton Elizegik ateratako ondoko argazki honi erreparatu besterik ez dugu horretaz jabetzeko. Gogoratuko ote gara hemendik urte batzutura Elizegik eskeinitako prespektiba honetaz? Ziur ezetz; ziur gure oroi-menetik urteak pasa ahala ezabatzen joango dela, gure aurrekoek eskolak egin aurretik hortxe zegoen ariztiaren irudia galdu duten eran. Denboraren errotak ez du etenik.

Noauak eskeintzen didan txoko honetatik, oraindik Aginagako frontoi berria ikusi ez duzutenoi, argazki hau hartu eta bertara joatera animatu nahi zaituztet, argazkia atera zen leku berean kokatuz izandako aldaketa ikus dezazuen.

Zalao Arnaiz Ibareguren,
fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net



OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta Noaua!ko Txirrikituko atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9:00etatik 14:00etara). Bestela, 943371951 telefonoan edo fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net e-postan aurkituko gaituzu. Garai bateko argazkien bidez gure herria hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Anima zaitez!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda

Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea: Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITZIBER MATXAIN _____ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. URR.

KONTZEJU TXIKIA _____ 10. URR.

Pintura ikastaro berri bat antolatu da



JEXUX ARITZE GOGOAN _____ 11. URR.

ELKARTASUN EGUNA, ARRAKASTATSUA _____ 14. URR.

KORRIKA 13-KO IRUDIAK _____ 15. URR.

ODOL EMAILEEN BILKURA, HILAREN 27AN _____ 16. URR.

PILOTA TXAPELKETA NAGUSIA HASTERA DOA _____ 17. URR.

LEHIAKETA ETA DENBORAPASAK _____ 19. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrerria

AZALA

Korrika goizean goiz pasa zen. Azalaren egilea, Zalao Arnaiz.

Zutabea !



AITZIBER MATXAIN

Gure kutsadura

O rain arte lurpean, ixilean egin diren lanak, udaberrian, aireratu eta denoi eskeintzen zaizkigu, gure zentzumenen gozagarri.

Zuhaitzak hostoberritu eta bazterrak kolore biziz jantzi dira. Usainen jolasak, txori festak, intsektuen dantzak... arnasten dugun airea indar berri eta bereziz kutsatu dute.

Kutsatu, kutsatu... indar bereziz..., gero eta oztopo gehiago jartzen dizkiogu lan honi. Gero eta gehiagotan da nagusi "gure kutsadura"; itsaso aireak zikindu, bazterrak txikitu eta porlanez bete ditugu. Bata bestearen atzetik, eta aspaldi martxan jarri genuen tren hau gertuarazi ezinik batzuk eta honetarako asmorik gabe bes-teak.

Natura ito eta bere indarrak isilarazten ari gara, kalitatez bizitzeko behar beharrezkoak ditigunak.



Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

Hurrengo alea: maiatzak 2. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** apirilak 25.

Postaz: Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

e-posta bidez: noaua.k.e@euskalnet.net

M N
CENILL

... k r - n t u r t
... t l l u k
... r z t l z - l u k
... n t u r - l u k r h r

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

I n t n n - z r m u n l k

BENARAKO BERRIK
BERRIK BERRIK MAIOR...

Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

PATRI

JATETXEA

- Eguzkeroko menuak
- Plater kombinatutak
- Ogituzteak

Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etxe st k l , 3
Tlf 33 11

TABERNA-JATETXEA
NTXET

EGUZKITZ ,
2.17 USU U.
TEL. 337 3

- E u n r k m n u k
- t r t k k
- l t r k n n t u k

Bagdaden izan da Aitor Heleta, Komite Internazionalistak taldearekin batera

Bagdaden zegoen Aitor Heleta bonbardeaketaren bezperan. George Bush-ek bota zuen ultimatumak Bagdaden entzun zuen Aitorrek. Oso une latzak pasa zituzten. Azkenean, Komite Internazionalistak taldeko hiru brigadista bertan geratzea erabaki eta beste guztiak, Aitor Heleta tartean, Jordaniara joatea erabaki zuten. Handik jarraitu zituzten inbasioaren lehen egunak.

Hiru egun egin zenituen Irakeko hiriburuan. Harrera ona egin zitzazuela entzun dugu. Hala izan al zen?

Harrera ikaragarri ona egin ziguten. Hangoek ederki asko ezberdintzen dituzte herritarrak eta agintariak. Zoritxarrez, Estatu espainolak hartutako erabakia ez doa bat jendeak pentsatzen duenarekin eta beraiek hori oso ondo dakite. Han informazio asko daukate eta hemen egiten diren mobilizazioen berri badute.

Jordaniatik jarraitu zenituzten lehen eraso horiek. Iraken zeuden lagunengatik kezkatuta egongo zineten, ezta?

Gure lagunek segurtatsuna ez dute ziurtatuta baina beti ere nahiko egoera onean daude. Justu gu Amann-era (Jordania) iritsi ginenean hasi ziren bonbardeaketak eta latza da bonbardeatua izango zarela alde aurretik jakitea. Ez dakit nola esplikatu, baina une horiek oso latzak dira.

Komite Internazionalistak taldeko kideak ondo daude. Egunero kalera ateratzen saiatzen dira, sarraskiaren ondorioak ikustera eta arratsalde partean hotelako babeslekura sartzen dira gaua pasatzera.

Zu Bagdaden izan zara. Irakiarrek nola bizi dute gatazka?

Irakiar herriak ondo dakizki eraso honen arrazoiak. Herria hipotekatu nahi diete. Horrek izen bat dauka: petrolio. Yankee-ak sartzen badira eraso honen



INBASIOAREN HASIERAN, BAGDAD ETA AMANN HIRIETAN IZAN ZEN AITOR HELETA.

kostua kobratzen hasiko dira. Gero, erakitzekeo gastuak, kreditu batzuk eskatzen badituzte berdin... Herria urte askotarako hipotekatu nahi dute eta irakiarrek badakite hori dela arrazoi nagusia. Oraindik forgatzeaz dago lehendik esaten zuten guztia, arma kimikoena... Horrelakoak azalduko direla konbentziturik nago. Armak han zeudela edo ez zeudela? Hori ez dugu inoiz jakingo baina azalduko direla bai, yankee-ek jarrita edo alde aurretik han zeudelako.

Saddam Husseinen aurka irakiar asko dagoela esan zitzaigun eraso hasi baino lehen. Zuk nolako sentsazioak jaso zenituen Bagdaden?

Kontra edo alde ez dakit, baina denak daude bere herria defenditzearen alde, inbasioaren kontra. Amerikarrek uste zuten jendea errepideetara aterako zela ongi etorria ematera eta zeharo oker zuden. Egun hauetan ikusi dugu.

Nahiz eta denak ados ez egon Husseinekin, euren herria erasotua ikustean horregatik ari dira defentsa lanetan.

Guk inpresio hori jaso genuen.

Zibilak ez zirela hilgo ere esan zen.

Inbasioa hasi baino lehen, Nazio Batuen Erakundeak 250.000 hildako aurrikusten zituen. Horietatik gehienak zibilak. Askok dira erori direnak, baina tristea izango zen kopuru horretara iristea, baina posible da.

Egun hauetako egonaldiaren ondoren, zein da ekarri duzun inpresioa?

Hiru egun oso gutxi dira baina beraiek ondo bereizten dute hemengo jendearen jarrera eta hemengo gobernuen jokaera.

Zentzu horretan, gauzak argi dauzkate. Informazio iristen zaie eta euren herria defendatzearen alde daude.

Aurretik bestelako brigada lanetan izan al zara?

Iaz Palestinan izan ginen eta hango ezberdina da. Palestinan israeldarrek egindakoa ikusi genuen baina oraingo honetan gauza ezberdina izan da. Bihar edo ordu batzuk barru zauden lurraldea bonbaz josiko dutela jakitea oso gogorra da.

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Angula arrantza arautuko duen dekretua

Duela urte pare bat, agintariek isunak iragarri zituzten anguleroentzako baldin eta baporeekin segitzen bazuten angulak harrapatzen. Gainera, angularen arrantza arautzeko legedi berri bat landu behar zela ere esan zuten. Jendea beldurtu zuten, baino gero betiko martxan jarraitzen utzi zuten, legedia gerorako utziaz.

Aurtengo otsailaren azken egunean jarri da indarrean Eusko Jaurlaritzak angularen arrantzari buruz atera berri duen dekretua. Bertan arrantza mota hori antolatzeko arau orokorrak ezarri dira: lizentziak ematea, lizentzia-motak, indarraldia, baimendutako arrantza tresnak, angularen arrantza-aldia etab.

Irakurri dudanez, aurrerantzean, lehorretik zein ontzitik izan, angularen arrantzan aritu ahal izateko beharrezkoa izango da dagokion lizentzia izatea. Lizentzia norberarentzako eta inori utzi ezinezkoa izango da.

Lizentziarekin batera harrapaketa-orria eraman beharko da. Bertan, titularrak harrapakinen pisua, erabilitako arrantza-tresnak eta arrantza-eguna eta ordutegia jaso beharko ditu. Angularen arrantzarako

lizentziak, berez, ez du bidea ematen titularrek harrapatutako angulak saltzeko.

Bestaldetik, harrapatzeko baimenak arrantza aldi bakoitzeko emango dira eta arrantza-aldi horretan izango du indarra. Berritzeko ezinbestekoa izango da aurreko arrantza-aldiko harrapaketa-orria behar bezala beteta aurkeztea.

Angula harrapatzeko, ur bazterretik zein ontzitik egin, baia erabili beharko da. Hauen gehieneko neurria erdiko lerroan 1,8 metrokoa izango delarik.

Ezin izango da erabili tresna mekanikorik.

Azkenik, angula urriaren 15tik hurrengo urteko martxoaren 15a arte harrapa daiteke. Garai horretatik kanpo debekatuta dago arrantza egitea.

Dekretu honetan xedatuaren aurkako arau-haustetak, bere larritasunaren arabera beti, aldi baterako lizentzia kentzearekin edo isunarekin zigortuko dira. Aurtengoa sasoia joan zaigu, iazkoa bezala oso txarra izan dela entzun dugu.

Hurrengoaren zain gelditzen gara. Ziur hemen aipatutakoak, gauzak ez badira aldatzen, zer esana emango duela. Ez da giro izango!

Bi urtetik behin korrika, urtero oinez

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Uurbildik ere pasa zen bi urtetik behin ospatzen den Korrika. Gerriak astindu, urtean behin erabili ohi ditugun galtza motzak armairutik atera, petoa aurrean ipini eta metro apur batzuk egin. Norberak bere neurrian; batzuek arinago beste batzuek motelago, baina guztiok AEKren mezua aldarrikatzen.

Atletismo frogara ez izan arren, badugu zerbaiten erronka: egunerokotasunean hizkuntzaren garrantziaz jabetzea, ahal den heinean esparru gehienetan euskararen presentzia areagotzea, hain zuzen.

Bestalde, prentsa idatzian nolabait ziurtaturik bazegoen ere, oraingo honetan murrizturik gelditu zaigu. Euskararen orriak txuriz datoz letrak beltzak izan arren. Hau dela-eta, orenen laguntza beharko da eguneroko orriak bete daitezen, irakurle berriak sor daitezen eta euskaldun sentitzen garenok irakurtzeko gaitasuna eta ohitura izan dezagun.



Udaberria iritsi da

Aurtengoan ere, udaberria iritsi zaigu espero baino lehen. Eguraldi onak hasi dira eta Kalezar aldean udaberriaren etorrera nabarmena izan da: izugarri jendi pila, adin desberdinetakoa, batzuk besteak baino gazteagoak, batzuk pasea-tzen, beste asko kirola egiten... urte sasoi honetan nabarmendu izan dugun bezala.

Jubilatuak, batzuk besteak baino zaharragoak eta taldeka edo bikoteka ikus daitezke; bikote gazteak ere ibiltzen dira alde honetan, normalean kirol jantziarekin eta inguruak aztertuz; goiz partean edo bazkaldu ondoren, emakume koadrila ugari ibiltzen da, gehienak Zubietako buelta egiten dute beren seme-alabak ikastolan utzi ondoren, bazkaria prestatu ondoren edota bazkaldu eta dena jaso ondoren; mendizaleak ere pasatzen dira, gehienak gizonezkoak izaten dira eta Igeldo eta Orio aldekoak batez ere, mutil gazte ugari ere ibiltzen dira footing egiten eta jende gaztea ere motorrean pasatzen da, 15-16 urtekoak batez ere.

Beste gertakari asko ere eman dira eta ematen ari dira Kalezarren garai honetan, aurreko kronika batean Ainara Uribek aipatu zuen bezala, parke berri bat egin dute umeentzat.



Bestalde, San Joanak ere gertu dira eta San Joanetako jai batzordea hasi da erabakiak hartzen eta festak antolatzen, uste baino lehen festak gainean izango ditugu.

Plazako etxe zaharra botatzeari ere ekin diote, Kalezarren geratzen diren etxe zaharrenetarikoa zen eta konpontzen hasi dira.

Besterik gabe, Aste Santua ondo pasa eta beste bat arte.

Kalezar



ALOÑA
PULIDO

Tipi tapa, tipi tapa

Tipi tapa, tipi tapa, pasatu zaigu Korrika 13, milaka eta milaka kilometro korrika euskararen alde, AEKri laguntza emanez. Mauletik Iruñeara, oztopo guztiak gaindituz, zenbat herritatik pasa ote da? Zenbat jende parte hartzen, ilusio handiarekin gainera!

Usurbil aldean ere auzorik auzo hemen ibili zaigu korrika, hasi Urbil ingurutik, Txikiardi, Zubieta, Santuenea, Kalezar, kaxkoa, Udala... Atxegalde parean ere ziztu bizian pasa zaigu, gero Kaparoz, Aginaga, Mapillera... oriotarrek lekukoa hartu arte.

Bueltan, kotxez, oinez... bakoitzak ahal duen moduan frontoira, txokolate beroa bizkotxoekin hartzera. Korrika saioan xahututako indarrak berritzeko moduko pizgarri gustagarria. Zein ona zegoen, behatzak txupatzeko modukoa! Zorionak Sarasola jaunari, hark egin baitzuen

Eta azkenik, bazkari mundiala Agerialdeko jangelan, herritarrak parte hartzeko aukera ezin



hobea umore pixka batekin. Orain hurrengoaren zain geldituko gara! Edo bestela, gogoarekin gelditu direnak Iruñeara joan daitezke Korrikaren 13. edizioari bukaera ematera.

Atxegalde



JONE
EIZMENDI



AGUSTIN
ESNAOLA

Santuenea

Auzoaren etorkizuna

Ez da erraza etorkizunean gure auzoa nolako izango den imajinatzea. Baina ariketa hori egitea pentsatu nuen eta hemen daukazue emai-tzak.

Auzoaren ezaugarri batzuk beti mantenduko dira. Ibaiak bere bidea jarraituko du, zubi bat egon beharko du, San Esteban ermitaren magalean kokatuta egongo da auzoa eta auzoaren bizkarrean Andatza izango dugu itzala ematen.

Beste ezaugarri batzuk aldatuko dira eta pentsa dezakegu etxebizitzak, itxura galtzen joan arren, pixkanaka pixkanaka hobekuntza eder bat izango dutela eta apaintze txukun bat emango zaiela. Hamabost urte pasa dira kaleak txukundu zirela eta laster berrikuntza bat eskatuko dute, horregatik konponketa nagusi batean oztopoak gutxituko dira, etxe tartean loreak jarriko dira eta kaleko al-tzariak hobetuko dira. Honekin ikusi daiteke Santueneak hobekuntza handia izango lukeela. Ahaztu gabe auzoko beste eraikin garrantzitsuak,

auzoko plazaren estalpea, Sainarrenea inguruan doazen etxe bizitzak, etab...

Beste ikuspegi batetik, kontutan hartu behar dugu Usurbilgo herritarren artean auzo hau ez dela izan oso gustukoa, beti fama txarra izan delako. Honegatik eta ezker aldean dagoelako etxebizitzak merkeagoak dira, hala eta guztiz ere, gazte jendeak nahiago du kaskora joatea bizitzera, beraz honek dakarkigu auzoa zahartzea eta etorkinentzat erakargarriagoa izatea. Hauek dira auzoan dauzkagun erronka handienak. Nire ustez etorkinena izango da zailtasun handia, integrazio garaian kultura oso ezberdineko jendea elkartzen delako eta gure ohiturak arrotzak zaizkielako. Hau honela izan arren, eta hasiera batetan elkar bizitza zaila gertatu arren, auzotarrak jakin izan dugu, lehen ere elkar bizitzen eta auzo giro lasai eta eder bat bultzatzen. Hau izan behar du etorkizuneko auzoa, itxuraz polita eta txukuna baina harremanetan jatorra eta etorkizuneko.

Parkeko komunak



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Aste honetako nire txokoan udaberriari aburuz idazteko asmoa nuen. Eguraldia hasi dela ontzen, egunak hasi direla luzatzen, loreak hasi direla iristen, txoriak hasi direla kantatzen...

Idea hau modu atsegin batean nola garatu nezakeen pentsatzen nabilen baina igandean, honela galdetu zidan amak: "ikusi al dituzu parkeko komunak?". Nire erantzuna ezezkoa zela ikusirik, "bada joan zaitez nola dauden ikustera, izango duzu aste honetako Noaua!n zer kontatua".

Astelehen goizean, ez dakit nongo kazetaria banintz bezala, komunak ikustera joan nintzen. Teilatu zati bat oso-osorik eroria dauka albo batera. Zerbaitekin moztua dagoela dirudi, zuzen-zuzena baitauka ertza. Bi atek jarriak daude baina igandean, bazter batean omen zeuden biak.

Ez dakit zer gertatu ote den hemen. Batzuk



esaten dute larunbata gauean soinu batzuk entzun zituztela, kolpe soinuak alegia.

Nik ez dakit baina hori kolpeka puskatzeko ere ez da meritu gutxi behar. Argi dagoena da ez dela berez puskatu, hor norbaiten eskuhartzea egon dela.

Orain ez dakit ezer baina espero dut denborarekin argituko dela hemen zer gertatu den.

Udaberriaren lilura

Oraingo kronika egiteko ez dut denbora gehiegi izan eta natorkizue poeta handi batek udaberriari buruz egindako poesia eder honekin. Ea gustukoa duzuen.

Oi, udaberriaren lilura!
Udaberriaren gozoa!

Biziak dira iturbegiak mendiburuetan.

Gozagarriak, txio-txioak,
adarrak adar, zuhaitz tantaletan.

Ikusgarriak, han, urrun-urrun,
haize-balak xeraka.
hosto zabal, gordin, dardarrietan.

Zoragarriak, kilkirren maite-deiak,
mendi-malda eta belarti-zelai gurietan.

Erogarriak, zokoak, bazterrak,
ur-xaltokako erreka humeletan.

Distiragarriak, loreak bere loretan,
apaindura oparoetan.

Gozagarria, itsas zabal urdinska,
plasta-plastan, tirain leun, laztanetan.

Erneak dira pizten lurraren barrunpean.
Zuhaitz-landareak muskiltzen, ernamuinean.

Maitasun-mustioa dirakiozadiari,
ugaltzearen minean.

Udaberrian, dena lore.
Dena amesti,

Udaberria bizitzean,
bizitzaren udaberrian.

Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Zubieta, mundu txikia

Behar bada, gizona baino mundu handiagoa da Zubieta; hala ere, mundu txikia. Eta mundua da, gainerako lekuetan gertatzen diren gauzak bertan ere badirelako. Eta txikia...

-Aita! Euskal Herria handia al da?

-Ez, txikia.

-Bai, zea! Nola izango da ba txikia!

Horrela aritzen gara seme-alabekin, Zubietan. Teleberriaren ostean, edo eskolatik bueltan izango da honako hau:

-Aita, Irak Euskal Herrian al dago?

-Motel,motel, urruti zegok hori!

-Banekian! -Xabierren ziur plantak ez du arraildurarik-.

Eta mundua... Munduen arteko mugak non diren orain hasi dira ikasten. Hala ere, ipuinka aritzen gara oraindik. Bazen behin Bagdad-en

morroi bat, Dayoub, plazara joan zena nagusiaren aginduz. Han herioa ikusi zuen... Gero esaten diegu ipuinekoak aspaldiko eta urruneko kontuak direla, lo hobeto egin dezaten.

Eta mundutik mundura saltoka. Zubietara Santuenetik datorren bidean, handiak dira apo jendeak hartzen dituen lanak eta nekeak: errepidea pasa nahi izaten dute ibai aldera iristeko. Asko, hil egiten dira autoen gurpilen azpian zapalduta. Zientoka dira gorpu ihartuak asfaltoan. Apoek ez dute ikasi auto zapaltzaileen hatzparretatik ihes egiten. Eta nire kolkorako galdetzen dut: negar egingo al dute apo emeek arrak hilda ikusita? Edo kumeak?

Galderez betetako kronika hau bukatzeko aipa dezadan azken kontua: Korrika pasa da herritik, egunsentian. Saltoka, jauzika geuk ere, apoak bezala. Alai eta koloretsu pasa da Karabana. Azkar, beti ere: bide luzea dugu nonbait. Eta tartean errepide asko.

Zubieta



**PELLO
ARANBURU**

Apirilaren 28an hasiko da pintura dekoratzailea menderatzeko ikastaroa

Trompe l'oeil izeneko teknika dekoratzailea menderatzeko ikastaroa antolatu du udal enplegu batzordeak. Hona hemen, Josune Mujika teknikariak eman dizkigun azalpenak.

Zein da ikastaro honen ekarpen nagusia?

Bi dira ekarpen nagusiak. Alde batetik, pintura dekoratzailearen teknika desberdinei emango zaiela garrantzia: imitazio desberdinak (egurra, marmola, harria), trapeatuak, entanponatuak, estukoak.

Eta beste aldetik, pintura lan desberdin horiek teknika piktoriko desberdinen ikasketa praktikoarekin osatuko direla. Gainera guzti hori obrako pinturaren oinarriak ahaztu gabe. Gure asmoa, obrako pintura, pintura dekoratzailea, eta pintura artistikoa egitasmo bakar baten barruan integratzea da.

Lana bilatzeko baliogarri izango al da?

Aurreko ikastaroak egin dituzten ikasle asko lan munduan sartu ahal izan dira. Batzuk besteren kontura lan eginez eta besteak berriz autonomo bezala jarritz. Nolabait, artista obrako buzoarekin janztea litzateke gure asmoa. Mural bat elementu dekoratzaile bezala sartzeak balorea emango



AGINAGAKO TAILERRAN EGINGO DA IKASTAROA.

dio pintura lan bati, baina beharrezkoa da berau luzitu ahal izateko pareten prestaketa egokia eta bukaeran inprimazio egokia izatea. Artistari, hauxe gertatzen zaio, azaleraren prestaketa lanak, fondoak, barnizatuak... subkontratu behar izaten dituela eta orduan bere lanak ez dauka errentagarritasunik edo bestela izugarri garestitzen da.

Pintura dekoratzailea eta trompe l'oeil

Datak: apirilak 28/ azaroak 16.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 13:30etara.

Lekua: Aginagako pintura tailerra.

Informazio gehiago: Usurbilgo udaletxean, 943 37 19 51.

EUSKAL TXOKOAK, BESTE EGOITZA BATERA

Euskal Txokoek apiriletik aurrera egoitza berria izango dute. Apirilaren 14tik aurrera, berriz, Kale Nagusiko 4n dagoen lokalean egingo dituzte bilerak. Orain arte, Euskal Txokoekin batera Txaramuntoko lokaletan izan diren beste hauek ere han izango dira aurrerantzean: Guraso Eskola, San Estebango Jai Batzordea, eta Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak.

PEOI LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA

Bi dira azken aldi honetan udalak egin dituen deialdiak:

- Bi peoi, elektrikari laguntzaile bat eta lorazain laguntzaile bat lau hilabete tarako. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 10a bitartekoa izango da eta oinarriak udal erregistroan daude.

- Peoi lan poltsa osatzeko oinarriak. Bi urteko iraupena izango du eta bajak ordezkatzeko izango da. Epea apirilaren 22a bitarte (14:00ean).

OHARRA

Martxoaren 20 egin zen ez-ohiko udalbatza plenoan, PSE-EEko ordezkaria ez zela azaldu aipatu genuen aurreko alean. PSE-EEko zinegotzia den Amaya Goyaranek esan digunez, ez zen utzikeria edo interes faltagatik izan, "ez nuen deialdia jaso eta ez nekien pleno hori egitekoa zenik".

Lehiaketa bidez aukeratuko da jaietako egitarau diseinua

Jai Batzordeak Santixabeletako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren ardura-dun. Lana maiatzaren 12a baino lehenago eraman behar da Usurbilgo Udaleko Kultura eta Euskara Zerbitzura.

Dena den, egitarauaren diseinua egiteko, egitarauaren testua Udaleko Kultura eta Euskara Zerbitzuan jaso behar da; eta

testu horretan oinarrituta egingo da diseinua. Lehiaketa irabazten duenak 500 euroko saria jasoko du.

Lana zuzenean inprimategira eramateko formatuan ekarri behar da: quark eta/edo freehand formatuan. Irudiak tiff formatuan, 300eko bereizmenean eta kuartrikomian.

Bi gutunazal aurkeztuko dira itxita eta egilearen izengoitia agerian dutela. Batean, diseinu proposamenaren hiru kopia eta CDa egongo dira; bestean, egilearen datuak: izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia.

Jexux Artzeren lagunek hamabostaldi oparoa antolatu dute

Iaz zendu zen Jexux Artze. Maiatzaren 3an hil zen, gaixotasun larri bati denbora luzez aurre egin ondoren. Dena den, azken unerarte oholtza gainean aritzeko adorea izan zuen. Bere lagunek Jexuxen lana eta Ez dok Amairuko garaia gogora ekartzeko moduko hamabostaldia antolatu dute.

Santixabeletan bildu ziren lehenengoz Jexux Artzeren lagunak. Bere omezez zerbait antolatzeko grinak batu zituen. Orainsu kultur ekitaldiz osaturiko hamabostaldia iragarri dute. Apirilaren 22an hasiko da eta maiatzaren 3an amaituko da, Jexux zendu zen egunean.

! EZ DOK AMAIRU GARAIKO KULTUR MUGIMENDUA EKARRI NAHI DA GOGORA !

Ahalegin askoren fruitu dira egitarauan ikusiko dituzuen deialdiak.

Jexux gogora ekartzea zen lehen asmoa baina azkenean Ez dok Amairu kultur mugimenduaren isla izango da egitaraua.

Apirilaren 22an irekiko dira erakusketaren ateak. Eta bertan bildutako argazki eta dokumentu asko ez dira orain artean jendaurrean ipini. Zentzu honetan, aipatzekoa da Joxe Ramon Furundarenak egin duen lana. Ate asko jo behar izan ditu, baina ahaleginak bere fruituak izan ditu.

Erakusketa aipatu badugu ere, Jexux Artzeren biografi liburua ere nabarmentzeko modukoa da. JosAn Artzek eta Juan Luis Zabalak idatzi dute eta ekitaldi guztietan erosi ahal izango dugu, 6 eurotan.

Musikariek ere bat egin dute Jexux Artzeren lagunekin. Maiatzaren 3a artean, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Oreka Tx eta Oskarbi taldeak arituko dira.

Emanaldi guztietara joan nahi izanez gero, abonua salgai izango dira 25 euroko prezioan. Sarrerak eta abo-



JEXUX ARTZEK LEKU BEREZIA IZANGO DU PRESTATU DEN ERAKUSKETAN.

nuak honako puntuetan aurkituko dituzue: Bilintx (Donostia), Jalgi (Lasarte), Lete (Hernani) eta Usurbilgo Oiardo, Mahuka, Txirristra eta Aitzagan.

Egitarau erakargarria

APIRILAK 22, ASTEARTEA

18:00retan Udarregi ikastolan, "Ez dok Amairu" erakusketaren irekitze ekitaldia. Erakusketa zabalik apirilaren 22tik maiatzaren 4ra arte. Asteleheneretik ostiralera, arratsaldez 18:00-20:30 artean.

Maiatzaren 1ean eta larunbatetan, goizez 12:00-14:00 artean, eta arratsaldez, 18:00-20:30 artean. Igandez, goizez, 12:00-14:00 artean.

APIRILAK 24, OSTEGUNA

19:30tan hitzaldia Udarregi ikastolan: "Ez dok Amairu, taldearen nondik norakoak, 1966-1971". Hizlaria: Joxe Mari Iriondo.

APIRILAK 25, OSTIRALA

22:30tan Oiardo kiroldegian, kontzertua: Benito Lertxundik bere azken diskoa aurkeztuko du, "Nere ekialdea". Sarrera, 10 euro.

APIRILAK 29, ASTEARTEA

19:30tan Udarregi ikastolan, "Jexux Artze" biografi liburuaren aurkezpena. Hizlariak: JosAn Artze, Juan Luis Zabala.

APIRILAK 30, ASTEAZKENA

19:30tan Udarregi ikastolan, Txalapartaren aldaerak. Hizlari, Joan Mari Beltran.

MAIATZAK 1, OSTEGUNA

22:30tan Dema plazan, "Oihana auhenka"

emanaldia. Musika, poesia, perkusioa... JosAn Artze, Beñat Axeari, Mixel Etxekopar... Sarrera, 6 euro.

MAIATZAK 2, OSTIRALA

19:30tan Dema plazan, "Herriko leku desberdinetan txalapartarien saioak" kontzertua, Oreka Tx taldearen eskutik. Sarrera, 6 euro.

MAIATZAK 3, LARUNBATA

22:30tan Dema plazan, Mikel Laboa eta bere taldea, Oskarbi. Sarrera, 10 euro.

+ Kontzertuan zehar, Jexux Artzeren oroimenean Xabier Lakak landu dituen bi arte-lan ezagutzera emango dira.

Ez dok Amairuren argia ez da itzali



BENITO LERTXUNDI, EZ DOK AMAIRUKO EMANALDI BATEAN.

1972. urtean desegin zen taldea, baina Ez dok Amairuren oihartzuna ez da itzali. Jexux Artze taldeko kide izan zenez, leku berezia izango du Udarregi Ikastolan zabalduko den erakusketan.

Joxe Ramon Furundarena izan da erakusketaren prestaketa-lanetan aritu den lagunetako bat. Apailatze lana ez da samurra izan, ate asko jo behar izan direlako, baina

ahaleginak bere fruituak eman ditu. Hitzez eta irudiz, Ez dok Amairu kultur mugimendua islatuko du apirilaren 22an zabalduko den erakusketak. Garaiko kantagintzaren egoera ezagutu ahal izango dugu eta, bide batez, taldearen sorrera, bilkaera eta desegitearen berri eman-go digu erakusketa honek. Arestian aipatu bezala, Jexux Artzek leku berezia izango du.



LOURDES IRIONDO KANTARI. ARGAZKIA: ARTURO DELGADO.

APIRILAK 22- MAIATZAK 4

"Ez dok Amairu" erakusketa Udarregi Ikastolaren aretoan. Apirilaren 22tik maiatzaren 4ra arte.

Jesus Artze, gizon eta txalapartari betea

Ez nuen sekula Jesus Artzerekin hitz egin. Ezin naiz harekin izandako tratuan oinarritu nolakoa zen esateko. Baina harekin gertuko harremana izan zuen jende askorekin mintzatu naiz azken hilabeteotan, eta iruditu zait bere inguruan arrasto sakona utzi zuela Jesusek.

Isila, apala eta goxoa zela esan didate. Baina bere isiltasuna ez zela hutsala; arretatsu, esanguratsu eta adierazkorra baizik. Bere apaltasuna ez zela otzana; sendo, duin eta dotorea baizik. Bere goxotasuna ez zela melenga; kementsu, eraginkor eta indartsua baizik. Eta sinetsi egin dut hori guztia, oso barrutik eta aho batez mintzatu zaizkidalako hori esan didaten guztiak, malkoei ezin eutsita bat baino gehiago, behin baino gehiagotan.

Baina Jesus Artze ez zen seguru asko izan zena izango, txalaparta aurkitu ez balu. Hogei bat urte zituela, JosAnton anaiarekin batera, Lasarteko Zuaznabar anaiek, Astigarragako Goikoetxea anaiek eta inor gutxi gehiagok jotzen zuen musika tresna ezezagun haren berri izan zuen



Jesusek, eta handik aurrera Jesusen izar-raren parte bananduezina izan zen txalaparta. Baita haren gorputzarena ere, txalaparta jotzen hasi zenetik, ezinbesteko egin baitzitzaion zeregin hura, eta ez baitzuen inoiz tarte luzerik igaro ttakunaren laztanik gabe.

Lasterbide faltsurik hartu gabe, bide berriak bilatu eta aurkitu zizkion txalapartari Jesusek, JosAntonekin batera aurreneko urteetan eta beste musikari batzuekin ondorengoetan. Norekin aritu zen ikustea besterik ez dago txalaparta, sustraiei inoiz uko egin gabe, noraino jaso zuen jabetzeko: Ez Dok

Amairuko musikariak, Mikel Laboa eta bere taldea –Iñaki Salvador bereziki–, Luis de Pablo, Beñat Axiari, Jean Schwarz, Maddi Oihenart, Mixel Etxekopar, Evan Parker, Carlos Zingaro...

Sustraietan tinkoa, enborrean sendoa, adarretan eman-korra eta loreetan ederra izan zen txalaparta Jesus Artzeren esku isiletan. Betea.

Juan Luis Zabala

APIRILAK 29, ASTEARTEA

19:30tan Udarregi ikastolan, "Jexux Artze" biografi liburuaren aurkezpena. Hizlariak, JosAn Artze, Juan Luis Zabala.

Joxe Mari Iriondo, lekuko aparta

Loiolako Herri Irratia izan zen Ez dok Amairu eta garai hartako euskal kulturagintza mugimenduaren bozgorailu nagusia. Joxe Mari Iriondo garai hartan Herri Irratian aritzen zen lanean eta diktaduraren zentsura gertutik ezagutu zuen.

Ez dok Amairu taldea izan zen euskal kantagintza eta euskal musikaren industriaren bidea zabaldu zuena, ezta?

Egia da. Baina bada zerbait gehiago ere.

Euskal Kantagintza berriaren lehenengo eragile, Nemesio Etxaniz apaiz zena, eta Beskoitzetik Bilbora itzuli ziren Robles-Arangiztarrak izan zirela esan daiteke, 1957-1958an. Garai hartan zenbait jaialdi eman zuten Bilbon, Gor-Mutuen alde, gaisoen alde, etab., baina euskaraz kantatuz, beti ere.

Bergarako Club Ariznoa dantza lekuan kantatzen zuen Joxe Antonio Billar, Zarauzko Nahia dantza lekuan ari ziren Manolo Urbietia, Paxo etab. ere kontuan izan beharrekoak dira.

1964ko Aberri Egunean, bere disko txikiak argitara eman zituen Mitchel Laveguerie jaunak: "Gu gira euskadi", "Gure astoa balaan"... Egun horretan, Hazparneko gaixoetxean zegoen lagun bati eraman zizkion lehengo bi diskoak. Eta orduan bidali zizkidan neri ere.

Handik gutxira, 1974ko maiatzaren 5ean (igandea), Aizarnan kantatu zuen Lourdes Iriondok, Baserri gaztediak antolatutako jaialdi batean. Eta hurrengo egunean, Loiolako herri irratiari grabatu nizkion Abesten dizut jauna, Seaska kanta, nere gitarratxo...

Ez Dok Amairu izango zena sortzeko lehenengo egin zen bilera Zarauzko Euromar hoteleko kafetegian egin genuen, JosAn Artzek eskatuta. Hiru lagun bildu

ginen: JosAn Artze, Lourdes Iriondo eta nerau. Gero, handik hamabost egunera, gurean bildu ginen, Azpeitian.

Eta hirugarren bilerara, Donostian egin genuen, lagun batzuei deituta. Nik Julen Lekuonari deitu nion, Aizpurutxon apaiz zegoen-eta.

Ez dugu ahanzi behar, bestalde, Natxo de Felipe, Zorion Egileor eta beste zenbait kantari ere lanean ari zirela ordurako.

Zaila izan al zen mugimendu horren testigantza jaso eta heleraztea?

Ez zen erraza, ez, garai hartan eusaraz zerbait egitea. Kontrol ikaragarria zegoen. Eta "Delegación de Información y Turismo"-ko departamentuak, inork gutxiena uste zuen laguntzaileak izaten zituen, zertan ari ginen konfesatzeko behar zen tokian.

Lehenengo zentsura, Gernikako Arbola kantagatik – baina Ara Euskalerra esaten zuen bertsoa – eta Eusebio Eizmendi Txapel zenak kantatutako bertso batzuenatik izan genuen: "hil nahi zuten, baina oraindik/ zutik dago Gernikan arbola".

Hala ere, inork uste ez zuen abantailak izan genituen guk Loiolako Herri Irratian.

a) Loiolan, probintzian ari ginen gu. Baserritarrak edo aldeanoak ginen askoren iritiz, zorionez.

b) Egia da, nahi genuena egiteko aukera eman zigula Loiolako herri irratiak, garai hartan. Ez genuen diru asko irabazten,



ZUTIK EZKERRETIK ESQUINERA: LUIS ROMERO (OSKARBIKO ZUZENDARIA), JOSAN ARTZE, ATAHUALPA YUPANKI, BENITO LERTXUNDI, JULEN LEKUONA, MIKEL LABOA, JOXE ANGEL IRIGARAI ETA PAGO IBAÑEZ. MAKURTUTA: XABIER LETE, KARMELO ARREN (OSKARBI) ETA LURDES IRIONDO. TXOKOALDEN, SALTXIPI ONDAN ATERATAKO IRUDIA.

baina bai gustoko lanak egin.

c) Gure entzuleriak oso ondo onaretu zituen gure ahaleginak, eta haiek euskaraz nahi zuten entzun. Zer gehiago behar genuen?

Kantu asko zuk grabatu zenituen.

Bai. Garai hartako kantari askoren kantak grabatu genituen: Lourdes Iriondo, Julen Lekuona, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Enarak, Azpeitiko Galdos eta Lasa, Urretxindorrek, Zorion Egileor, Argoitia neba-arrebak, Lurgabe hirukoa, Xabier Lete, Oskarbi, Erlak bikoa, Yoloak... Orduko grabazio asko oso ondo gordeta ditut oraindik ere.

Halare, pena bakarra daukat: Ez Dok Amairu taldearen Baga, Biga, Higa ikuskari-sentikariarfen grabazio ofiziala eta serioa egin behar genuela erabaki zuen taldeak, eta huraxe ez nuen grabatu!!!

APIRILAK 24, OSTEGUNA

19:30tan hitzaldia Udarregi ikastolan: "Ez dok Amairu, taldearen nondik norakoak, 1966-1971". Hizlaria: Joxe Mari Iriondo.



Kafe berezia!

San Esteban kalea, 8

Telf: 943 36 27 70



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

Proiektu berria, denon laguntza premian

Arakasta handia izan dute Egunkariaren aldeko kamisetek. Baina lasai egon, oraindik ez dira agortu-eta. Horietako bat esku-ratu nahi duzula eta ez dakizula nora jo? Hiru toki hauetan topatuko dituzu: Aitzagan, Txirristran eta kiroldegian.

Tamaina guztietako kamisetak daude: 5-6 urte, 8-9 urte eta 10-11 urtekoentzat. Eta helduentzat, ohiko tamainak aukeran. Gainera, hiru kolore ditugu eskura: urdinak (Egunkaria! Aurrera leloarekin), txuriak (Xingola gehigarriaren irudiarekin) eta grisak (Zakilixuten irudiarekin). Azken biak, haurrentzat eginak. Batzuen eta besteen prezioa, 10 euro besterik ez.



PINAK ERE ATERA DITUZTE ETA BAITA METXEROAK ERE. AZKEN HAUEK AITZAGAN, TXIRRISTRAN, KIROLDEGIAN ETA BENTAN JARRI DIRA SALGAI.

LAGUNTZA-BONDOAK SALGAI

Egunkaria itxi bazuten ere, euskarazko prentsak bere lekua mantendu du kioskoan. Bereziki, langabezian dauden langile horien kemenari esker. Egunero dugu kalean baina jada langileak hasi dira proiektu berri batekin lanean.

Diru-bilketa une honetan laguntza bonoen bitartez bideratzen ari dira. Nola? Sendotu Euskal Prentsaren aldeko Kultur Elkartearen bitartez. Sendotu elkarte euskarara hutsez egingo den egunkaria lagundu eta sustatzeko helburuarekin osatu da. Bertako kide egin gaitezke 50 edota 300 euroko bonoak erosiz. Jada salgai daude eta herrian hasi dira lagun batzuk bono laguntza hauek saltzen. Bono horietako bat erosten duenak "deposito" kontzeptuan eman-gio dirua Sendotu elkarteari. Horren truke, bono erosleak sortuko den enpresaren akzio edo partizipazioak izango ditu. Taldeka ere eros daitezke, baina beti ere bonoa norbanako baten izenean egingo da.

75 harpide baietz!

Egunkari berriaren sendotasun ekonomikoa ziurtatzeko, bi dira martxan dauden ekimenak: harpidetzak eta diru-bilketak. Horiek dira herri guztietan sortu diren herri plataformen zeregin nagusienak. Usurbilgoa ere horretan dabil.

Harpidetzei dagokionez, langabezian dauden Egunkariako langileek herriz herriko estimazio bat egin dute eta Usurbilen gutxienik 75 harpide egin behar dira. Jada 30 dira harpidetza egin dutenak. Ia erdia, beraz, lortu da. Orain gutxienik, beste 35 harpidetza ziurtatu behar dira. Aurreko Noaua!n banatu genuen harpidetza



HARPIDE EGITEN BAZARA, GOIZEAN GOIZ ETA ETXEAN BERTAN JASOKO DUZU EGUNERO.

betetzeko txartela. Hori bete eta Noaua!ko egoitzara ekarri. Hemendik bideratuko ditugu Andoainera. Baina ez ahaztu harpidetza telefonoz ere egin daitekeela. Honako telefono zenbakira deituz: 943 30 35 55.

TX
rt
PINTX E EZI K
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

L T ILL E
ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K
17.777X K L.F . (3) 3 2 35-3 33
F.H.F M I 21

SE IG FI
T N G FI
OSU
3713
IN YST I ET
I C KI SE XE FI
K MOSELEN IN EM XEL

Jende asko bildu zen Korrikaren baitan

Korrika iritsi zen korrika. Hala espero genuen baina Txikierdira ezarritako ordua baino lehenxeago heldu zen. Goizean goiz, eguna argitu baino lehen pasa zen Korrika 13ren lekukoa.



GOIZEKO 6:30AK ALDERA IRITSI ZEN KORRIKA.

Beste urte batzuetan baino jende gehiago ibili zela adierazi ziguten AEK-ko kideek. Eta egia esan, ordu-tegia ez zen batere egokia. Baina Korrika 13n parte hartzeko grina handia zenez, herritar askok bat egin zuten Korrikaren deialdiarekin. Txikierditik iritsi zen igande goizean eta herria zeharkatu ondoren, Mapillen hartu zuten oriotarrek Korrikaren lekukoa. Goizean goiz pasa bazen ere, igandepasa egiteko ekitaldiak ez ziren falta izan. Txokolate goxoa dastatu ondoren, pilotariak girotu zuten eguerdiko giroa. Agerialdeko ikastolan egin zen herri bazkarian ere jende asko bildu zen. Trikitilariak eta bertsolariak alaitu zuten bazkalostea.



INDARRAK BERRITZEKO MODUKO BAZKARIA EGIN ZEN AGERIALDEN.

Aurreko edizioetan bezala, Korrika Txikik ere arrakasta handia izan zuen. Hau ordea, ostiralez egin zen, bi egun lehenago.

Akatsak zuzenduz: aurreko Noaua'n aipatu genuen ibilbidea Korrika Batzordeak igorri zigun.

Imersorekin oporretara joateko epea zabaldu da

Imersok 3. adinekoei zuzendutako 2003/2004 denboraldiko oporren programa jarri du martxan.

Bidai hauek 2003ko urria eta 2004ko ekaina bitartean egin ahal izango dira.

Bidaien nondik norakoak hauek dira:

- Penintsula edo irla balearrak. 8 edo 15 eguneko txandak.
- Kanariar irlak edo Portugal. 8 eguneko txandak.
- Aragoi, 6 eguneko txandak.
- Nekazaritza-turismoa. 5 eguneko txandak.

Programa honetan parte hartzeko, honako baldintzetako bat bete behar da:

- 65 urte edo gehiago izatea.
- Gizarte Segurantzako jubilatu pentsioduna izatea.
- Beste motatako pentsioduna izan



ASKO DIRA ERA HONETAKO BIDAETAN PARTEHARTZEN DUTEN HERRITARRAK.

eta gutxienez 60 urte beteak izatea.

-Nor bere buruaz arduratzeko gauza izatea eta bizikidetzara aldatu dezakeen arazo psiko-fisikorik ez izatea.

Eskaera egiteko epea 2003ko apirilaren 30ean bukatuko da.

Informazioa eta eskaerak Gizarte Zerbitzuen departamenduan aurkituko dituzue.

IMERSO 03/04

Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago: 943 377 110.

Gutxitu Fisikoentzat, eskaintza berezia

Beste urteetan bezala, Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak 2003. urterako bidai programa zabala osatu du Foru Aldundiako Gizartekintza Departamentua laguntzarekin. Bidai hauek minusbaliotasun fisiko, organiko edo sentsoriala izan eta opor batzuetaz gozatuko luketen pertsonentzat bereiziki pentsaturik daude.

Programa honetan parte hartzeko baldintzak honako hauek dira:

- Minusbaliotasun fisiko, organiko edo sentsoriala izatea
- Gutxienez 16 urte beteak izatea.

Norakoak hauek dira: Benidorm, Matalascañas, Salou, Peñíscola, Ibiza, Tenerife. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 15ean amaituko da.

Bestetik, Afagi elkarteak alzheimer gaitotasuna edo antzeko dementsia duteentzat oporraldiak antolatu ditu, Foru Aldundiaren laguntzarekin. Eskaerak, kasu honetan, apirilaren 30a baino lehen egin behar da.

FORU ALDUNDIA 03

Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 15ean amaituko da. Informazio gehiago: 943 377 110.

UHLren sinadura bilketa bide onetik doa

Usurbilgo Herri Lan Elkarguneak maiatzaren 25eko udal hauteskundetan aurkeztu ahal izateko sinadura bilketari ekin zion apirilaren 3an. Udal idazkariaren aurrean eman behar da sinadura, eta horretarako lau egun jarri dituzte: apirilak, 3, 5, 10 eta 12. Era berean, AUBri ere babesa emateko aukera izango da. Beraz, oraindik ez baduzu zure sinadura eman, aukera baduzu ostegun eta larunbat honetan.

UHLeko kideek esan digutenez, ondo doa sinadura bilketa. "Bi egunetan 250 sinadura lortu ditugu. Gure erronka 500 sinaduratik gora lortzea da. Beraz, herritar guztiak animatu nahi ditugu beren sinadura ematera. Edozein alderdik edo

plataformak du eskubidea hauteskundetan aurkezteko, horregatik eskubide horren alde egiteko deia egiten dugu".



Sinadura bilketa dela eta, egun osoko festa antolatu dute apirilaren 12rako. Egun osoan zehar ekitaldiak izango dira: goizean Aitzagako eskuz binakako txapelketako azken urteetako finalisten errebantxa jokatu da; arratsaldean, auzo arteko herri kirol desafioa izango da pilotalekuan, eta, 21:30etan bertso afaria Aitzaga Elkartearen. Bertan Mantxi eta Xabier Silveira bertsolariak arituko dira. Egun osoan zehar sinadura emateko aukera izango da.

II. ELKARTASUNA... ETORKIZUNA JAIA, ARABAKO IZARRAN

Iaz Usurbilen ospatu zen I. Elkartasuna... Etorkizuna izeneko jaialdia. Aurten, festa Arabako Izarran egingo da, Maiatzaren 3an hain zuzen. Egitaraua hauxe: Goizean Izarrako udaletxean ongi etorria. Eguerdian, kalejira. 14:00etan, Mikel Urdangarin eta Morauren emanalditxoak. 14:30etan herri bazkaria. 17:00etan herrialdeetako jaia (Kuxkuxtu txaranga, bertsolariak, gaiteroak, dantzariak, Xiberoko abeslaria...). 19:00etan erromeria.

APIRILAREN 12AN, MANIFESTAZIOA

Giza Eskubideen Defentsarako Udala Batzordeak ekitaldi ezberdinak antolatu ditu "Eskubide guztiak herritar guztientzat" lemapean. Apirilaren 12an manifestaziorako deia egin da: irteera, 19:30etan herriko pilotalekutik.

Omenaldia egingo zaie odol-emaile beteranoei

Odol Emaileen Elkarteak urtero bilkura bat egiten du. Inguruko herrietako odol-emaileak biltzen dira eta aipamen berezia egiten zaie 25 eta 50 emanaldi bete dituzten bolondresei. Aurtengoan, sagardotegi batean egingo zaie merezitako omenaldia odol-emaile hauei.

2002 urtean, 25 eta 50 emanaldietara iritsi direnen artean, hauek topatu ditugu:

25ekoen artean: Jero Tena, Josu Arruti, Ane Agirre, Angela Monte-

rroso, Maria Larrea, Fco Javier Martinez, Pako Portu, Jose Butista eta Moises Andres.

Bada zilarrezko eztei bereziak ospatu dituen odol emaile bat: Patxi Arteaga.

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak esker beroenak adierazi nahi dizkie lagun hauei, "urte askotan beraien borondate onez egindako eskaintza honengatik". Kopuru honetara iristeko temati izan beharra dago, baina hori ez da odol emaile hauen ezaugarri bakarra. Patxi Arrutik igorri digun idatziak dioen

bezala, kontuan hartu behar da "odola ematean lagun urkoari egiten dion mesedea. Kopuru batera iristea ez da helburua, baizik eta bakoitzak ahal duen neurrian odola emateak suposatzen duen borondatea adieraztea baizik".

Emaile hauek omenalditxo bat jasoko dute apirilaren 27an, Hernaniko Etxeberria Sagardotegian egingo den bilkuran.

Lagun hauekin batera, Oria beheko Odol Emaile Elkarteak kideak ere bilduko dira aipatu ospakizunean.



TXIRIBOGA
taberna

pintxoak, bokatak eta
plater konbinatuak

Telf: 943 36 13 98



ITZ G

HEIKTEN

SUSPENSIK, UR
KONTU, ER...

Tel. 33 217



Asteburu honetan hasiko da Pilota Txapelketa Nagusia

Asteburu honetan hasiko da Usurbilgo Txapelketa Nagusia. Aurtengoa, XXXI. edizioa izango da. Gazte mailan 16 bikote arituko dira eta helduen artean, berriz, 18. Santixabelak bitartean, partida guztiak asteburuetan jokatuko dira, eta goizez.



SANTIXABELETA AMAITUKO DA TXAPELKETA.

Herriko partehartzaileen artean, pilotari hauek topatu ditugu: Portu-Orena, Bengoetxea-Urkia (gazte mailan).

Helduen mailan bikote mixtoak osatu dira, usurbildar eta kanpotarren artean: Erroizenea (Hernani)-Arruti, Errasti-Oteiza (Añorga), Sancho-Argote (Añorga), Mikelperizena (Bera)-Landa, Huizi-Mintegi (Lizartza).

Apirilaren 12an jokatuko dira lehen partidak: Urretxuko Lasa-Pastriain bikotea, Barritzeko Lambert- Aritzmendiren aurka.

Partida honen aurretik, jubenilak kantxaratuko dira. Udaberri Txapelketa oraindik jokoan da eta Andazpe-Peña Pagolako Portu-Orena, Hernaniko bikotearen aurka arituko da.

Asier Arruti, lehen aldiz, helduekin

18 urte ditu eta 1m 90zmkoko altuera. Frontoiarenean atzean jokatzeke ezaguri guztiak betetzen ditu. Aurrean, lehen aldiz, Usurbilgo XXXI. Txapelketa Nagusiaren helduen mailan arituko da.

9 urterekin futbolearen aritzen zen. Baina pilotan gusturago zebilen eta pilota hautatu zuen. Hasieran, Pako izan zuen entrenatzaile. Handik gutxira, Tomas Lasarte eta gaur egun Enrike Huizirekin egiten ditu entrenamenduak. Asteartero frontoian ikus ahal izango duzue. Erdi Mailako ziklo bat egin du Zubietako Lanbide Eskolan eta orain praktikatzen dabil.

Asteburu honetan hasiko den Txapelketa Nagusian Erroizenea herna-

niarra izango da bere bikotea. Gustura dago helduen artean "klubaren arteko txapelketa nahiko ondo ibili ginen, semifinaleraino iritsi ginen", esan digu Arrutik. Eta emaitzei begira, bikote ona topatu duela esan daiteke. Hernanin egin berri den 22 urte azpiko txapelketa irabazle izan dira.

Andazpe-Peña Pagola elkartereko jokalaria da Asier eta etxean jokatzeak ez omen du urduri jartzen. Iaz, gazte mailan, semifinaleraino iritsi zen Asier. Ea honakoan, helduen mailan, finalera iristeko gai den.



HERRIKO PILOTA TXAPELKETAREN EMAITZAK

Martxoaren azken igandean jokatuko ziren Herriko Pilota Txapelketaren finalak. Hauexek dituzue finaletara sailkatu ziren pilotariak:

- 9 urtekoen artean: Iñaki Irazusta-Iñaki Uli.
- 10 urte: Julen Berradre-Xabier Peñagarikano.
- 11 urte: Ugaitz Agirre-Jon Aizpuru.
- 12 urte: Julen Dorronsoro-Unai Imaz.
- 13 urte: Unai Olaizola-Xabi Sancho.
- 14 urte: Eñaut Esnaola-Jon Alzaga.
- 15 urte: Iñigo Irastorza-Iker Zinkunegi.



ARETO FUTBOL TXAPELKETAREN DEIA

Txapelketa berri batek dantzan jarriko ditu herriko futbolzaleak. Apirilaren amaieran hasi eta Santixabéletan amaituko da eta edonork har dezake parte. Izena emateko epea apirilaren 4an amaitu zen. Delegatuen bilera: Apirilaren 12an Oïardo kiroldegian. 16:30etan, infantilak eta kadeteak. 17:00etan, senior eta neskek.

Hurrengo saioak !

FUTBOLA

Apirilak 13

Kadeteen 2. maila igoera: Hernani B- Usurbil FT.
Emakumezkoen Kopa: Usurbil FT- Hernani CD.
2. Erregionala Kopa: Mariño B - CDUsurbil FT.

Maiatzak 4

Kadeteen 2. maila igoera: Usurbil FT- Bergara B KE.
Emakumezkoen Kopa: Añorga KKE - Usurbil FT.
2. Erregionala Kopa: Vasconia B CD - Usurbil FT.



PILOTA

Apirilak 12

Udaberri Txapelketa. Andazpe Peña Pagola- Hernani.

19:00etatik aurrera.

XXXI. Txapelketa Nagusia. Lasa-Pastriain bikotea, Barritzeko Lambert-Aritzmendiren aurka.

Apirilak 13

XXXI. Txapelketa Nagusia. Heldu eta gazte mailako partidak 11:00etan hasita.




Kaixo irakurle!

Gu LHI1 mailako ikasleak gara eta okindegira joan ginenean, honako galderak egin genizkien Labe Goxoko langileei



OKINDEGIKO IRTERA



1. Ze pauso jarraitu behar dira ogia egiteko?

Lehenengo masa egin behar da. Ondoren nahi dugun forma eman behar diogu eta hotzgailuan egon ondoren azkenik labean sartzen da.

2. Ze osagai behar dira?

Legamia, hirina, ura eta gatza.

3. Ze tenperatura behar du labeak?

250 gradutan egon behar du.


4. Gauean ze ordutan hasten zarete ogia egiten?

Goizeko 4:00etan hasten gara eta zazpi ordu jarraian egiten ditugu.

5. Ze ogi mota da gehien saltzen duzuenak?

Barra luzea eta opilak dira gehien saltzen direnak.

BILATU SEI ALDEAK



MIKEL
IZ GI E

ELEKT RAT YE

0 0 0 7

R le

ed 0 - 0 0 171



Urtinea

L r k - L r l n r k

L r s r k - K r k

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



ARRAINDEGIA

PELLO



0 0 0 7
T13 21
060 1



Lehiaketa !

LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA!

Ezetz sartatu hiru galdera hauek?

1. Ze urtetan eta zein herritan ospatu zen lehenengo aldiz Euskaldunon Ligunkariaren jaia? (1 puntu)
2. Zein baserri erre zen azkenekoz Usurbilen? (3 puntu)
3. Zein da garai bateko Aginagako udal ontziola sonatuaren izena? (5 puntu)

Usurbilak
Ligunkariaren
azken eguna
maiatzak 4

Saria: LABRIT abeslariaren "Nori egin sol" eta BETAGARRI taldearen "Remix" musika cd-ak



Aurreko galderen erantzunak:

1. Ze zuhaitz dago landana Boidartxo iberraren aurreko errotondan?
ACIÑA
2. Zenbat metroz dago Jose Martin Sagardía plaza itsasoaren mailatik?
Altuera 27,22 metroa eta lujuera 25,07 metroa.
28-28 m luheria erantzun duzuenen ontziola erosi dugu.
3. A 8 autopistak ze baserri bota zituen Usurbilen?
ARHURU, ARTIZOTA, BENTA, ARTIKULA-HAUNDI,
ARTIKULA TXIKI ETA INTXUINTXARAI.



Puntuazio gehien lortu duzuenen artean zozketa egin ondoren AMAMAK irabazi du. 2002ko Noaua! hamaboskarizaren ale partien enkuadernaketan eskaintza desin eta Noaua!ko kamiseta eker bat irabazi dituzte. ZORIONAK!!! Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan.
OHARRA: Bos den lehiaketako 3. galderaren erantzuna oker puzi puzari, 1371. utzita lortu zuen Usurbilak udalari izatea eta ez 1971. urtean.

SAILKAPEN NAGUSIA

1. Joxe Mari Azpiroz.....41 puntu
2. Josepi Alkorta.....38 puntu
3. Arama.....36 puntu
4. Obez.....33 puntu
5. Amarna.....30 puntu
6. Aitz.....28 puntu
7. Mer.....26 puntu
8. Jesus Tapia.....26 puntu
9. Joxe Ripian.....25 puntu
10. Ixa.....25 puntu
11. Izar Dorronsoro.....24 puntu
12. Ander Aizpurua.....9 puntu

Zuk ere har ezazu parte Lehen Errezeta Lehiaketan

Bai, hala da. Errezeta lehiaketa antolatzea otu zaigu. Badakigu asko direla sukaldari sena dutenak. Zuen gustuko postreak, hamaiketakoak, platerak... ezagutu nahi ditugu. Baldintza bakarri jarri dugu: bertako nekazaritza produkturen bat erabiltzea. Errezeta aurkezteagatik bakarrik sari bat jasoko duzu. Eta lehiaketa irabazleak, berriz, saski eder bat.

Beraz, badakizu. Papera eta harkatza hartu eta ekin lanari. Laster jakinaraziko dugun epaimahai batek izendatuko du sari nagusiaren irabazlea. San Ixidro egunean plazaratuko dugu izena. Animo, erraza da eta!

LEHEN ERREZETA LEHIAKETA

Usurbildar guztiei irekita dago lehiaketa. Errezeta bakarri aurkez daiteke. Argi idatzi osagaien zerrenda, errezetaren prozedura, izen-abizenak eta telefonoa.

Epea: maiatzak 4 bitartean. Noaua!ko bulegora ekarri zure errezeta.

Osagaiak aukeran: piperrak, ezia, sagardoa, esnea, barazkiak, okela, fruituak... bertako baserrietako ekoizpena.

Sariak: errezeta aurkezteagatik, ezti zein piper pota bana. Irabazleak saski eder bat jasoko du (100 euro ingurukoa)

Oharra: Noaua! aldizkariak errezetak argitaratzeko eskubidea izango du.

Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarte, udal nekazaritza batzordearen laguntzarekin.



SUKALDERAKO DUZUN
AHALMENA ERAKUSTEKO UNEA
IRITSI DA. ANIMO!

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	20.33*	20.50*	20.38*	20.54*	21.09*
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

* Astegunetan bakarrik

Goardiako farmaziak

Apirilak 11, ostirala
 E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte.
 G: Ansa, Ondarreta, 8 Andoain.

Apirilak 12, larunbata
 E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte.
 G: Bulnes, Grupo Etxeberri 1, Hernani

Apirilak 13, igandea
 E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte.
 G: Bulnes, Grupo Etxeberri 1, Hernani

Apirilak 14, astelehena
 E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte.
 G: Arzallus Aita Larramendi, 16 Andoain

Apirilak 15, asteartea
 E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

Apirilak 16, asteazkena
 E/G: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte.

Apirilak 17, osteguna
 E/G: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.

Apirilak 18, ostirala
 E/G: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.

Apirilak 19, larunbata
 E: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.
 G: Gorospe, Rikardo Arregi, 12 Andoain.

Apirilak 20, igandea
 E: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.
 G: Gorospe, Rikardo Arregi, 12 Andoain.

Apirilak 21, astelehena
 E: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.
 G: Bilbao, Urbietta 7, Hernani.

Apirilak 22, asteartea
 E/G: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte

Apirilak 23, asteazkena
 E: Gil, Kale Nagusia, 24 L
 G: Iturralde, Poligono 13, 9 USURBIL

Apirilak 24, osteguna
 E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte.
 G: OA, Poligono 1, USURBIL

Apirilak 25, ostirala
 E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte
 G: Tanco, Idiazabal 39, Urnieta

Apirilak 26, larunbata
 E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
 G: Zatarain, Elizondo 6, Andoain

Apirilak 27, igandea
 E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
 G: Zatarain, Elizondo 6, Andoain

Apirilak 28, astelehena
 E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
 G: Etxebeste, Elkano 2, Hernani

Apirilak 29, asteartea
 E: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.
 G: Bilbao, Urbietta 7, Hernani.

Apirilak 30, asteazkena
 E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte.
 G: Gomez, Mayor 14, Hernani.

Maiatzak 1, osteguna
 E: Gil, Nagusia 24. Lasarte.
 G: Diaz, Mayor 19, Andoain.

Maiatzak 2, ostirala
 E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte.
 G: Chucua, Kardaberaz 48, Hernani.

G: gauze (21:00etatik 09:00etara).
 E/G: Egunez eta gauzez

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.45	08.05		08.30
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.20	09.30		08.15	08.35		09.00
09.00	09.25	09.35	09.55	08.45	09.05		09.30
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.40
10.00	10.25	10.35	10.55		09.30	09.35	10.00
10.40		11.05	11.25	09.45	10.05		10.30
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45**	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05		11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05		12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00.00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02.00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04.00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06.00		06.25	06.45				

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

*Aiatik dator # Asteburutan
 Soilik larunbata gauze Larunbat lanegunetan

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
 7:55*/9:30(T)/13:15(T)/14:35*(T)/19:15(T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 7:15*/9:00/12:45(T)/13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
 8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
 11:25(T)/13:30(T)/15:30(T)/21:35(T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 11:00(T)/13:00(T)/15:00(T)/21:00(T)

* Eskola egunetan
 T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Maiatza						
As.	Ar.	Az.	Ost.	Ir.	Ig.	
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Kalezar)..... 36 45 00
- Agerialde ikastetxea..... 36 38 95
- Oiarde kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendu erosiko nuke. 943 364469.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.
- Konpartitutako pisu baten bila nabil alokatzeko. Deitu 5:30etatik aurrera. 637 193 100.
- Pisu bat saltzen dut. Munalurra 4, 4 A. Telefonoa: 943 37 10 44.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Txaramunton 30 m2 ko garaje itxia prezio onean, 24.821 eurotan. Tel: 666 646 847.
- Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainan 200 eta 300 m2-ko bi bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77.
- Garaje itxiak saltzen ditut, Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro. 15 m, 7.800 euro. 26 m, 9.000 euro. Telefonoa: 656 759 583.
- Peugeot 205 salgai, SS-4445-W. Salgai, 900 euro. 943 360 599.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauzez. 943 371447 (Belen).
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauzez edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira. Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.
- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurrit tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Leku txiki alokatuko nuke. Ahal bada komunarekin. Telefonoa: 943 36 02 13. Yolanda.
- Argazki kamara bat dut salgai: Pentax MZ 50. Objektiboa 1:4-5.6 35 mm-80mm. Instrukzio liburua. Eramateko boltsa. Zozketan saritua. 625 70 51 14 (arrats-gauean).
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 8 urteko mutil koxkor baten txamarra galdu da, Reebok markakoa. Inork aurkitzen badu deitu, 943 36 06 43 telefonora.
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Kotxe bat salgai, SS-AP. Elbarrituentzat egokitua. Garajeen zaindutakoa. 943 36 43 10 (gauzez deitu).
- Ford Transit salgai. 5 urte ditu. Prezio onean utziko nuke. 656 759 583.
- Trial bizikleta bat dago salgai. Monty X-DRYA. Interesatuak deitu 943 37 26 46.

JAIOTZAK

- **Jon Mikel Elexpe Cabrera**
2003-III-30. Usurbil.
- **Izaro Egiguren Bengoetxea**
2003-IV-1. Usurbil.

Txerrimunik ordainetan - Oharrak, doaneko zerbitzuak dira.

Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Argazkia - Gasa - Berokuntza

J. r z

Bizkarra 1, 1.esk. 37 29 37 - 659 602789

Knk l

- L ntz r
- Gz n zk n rr p
ll ur ntz k
- Fix r k h r
tuzun k

Zubiaurrena, 3 33 17 7

Agenda !

APIRILAK 11, ostirala

- Egun erdiz publizitateaz arduratuko den pertsona bat kontratatu nahi dugu Noaua!n.

Curriculum vitae-a ekarri edo bidali honako helbideetara: noaua.k.e@euskalnet.net, noaua@topagunea.com edo Noaua! Kultur Elkarte, bordaberri, 3 - 20170 Usurbil.

APIRILAK 12, larunbata

- Sinadura emateko deialdia Herri Lan Plataformaren eskutik. 11:00an pilota partidak: Leko-Arroyo, Muxo-Arkaitz, Ibarreta-Troia, Arkaitz-Kastresana. 17:00ean auzo arteko herri kirol desafioa. 21:00tan, bertso afaria. Menua: onddo pastela, bakailao piper beteak, haragia saltsan eta ijitu besoa. Prezioa, 20 euro. Txartelak salgai TxirriStran, Aitzagan, Bentan. Bertsolariak: Mantxi eta Xabier Silveira.

- Manifestazioa Giza Eskubideen Udal Batzordeak deituta. 19:30etan herriko pilotalekutik, "Eskubide guztiak herritar guztientzat" lelopean.

APIRILAK 20, igandea

- Aberri Eguna.

APIRILAK 23, asteazkena

- Liburuaren Nazioarteko Eguna. Ipuin kontaketa, 5-9 urteko haurrentzat udal liburutegian, eguerdiko 12:00etan, Oihulari Klown taldearen eskutik.


APIRILAK 22/ MAIATZAK 4

- Jexux Artze gogoan hamabostaldia.

MAIATZAK 4, igandea

- 11:00etan salda, salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria. Ondoren, herri kirol eta jokuak. 14:00tan, bazkaria (bakoitzak berea). Kafea eta kopa goian banatuko da. Bazkalondoren, erromeria. Eguraldi txarra egingo balu, bazkaria eta erromeria Usurbilgo frontoian.

Literaturaren txokoa !



"Kafka Bilbon" irudikatu du Pedro Alberdi idazleak

Kafka Bilbon, bilduma honetan dagoen narrazioetako bat da, baina bada beste zerbait ere, bilduma osoaren giltza, alegia; idazle txekiarraren presentzia liburu honetan ez baita narrazio bakar horretara errenditzen: "Kastiguan" zehar barreiatzen da, eta "Eta Besteko" mikronarrazioak ere harrapatzen ditu. Presente dago haren espiritua "Dama Beltza" kontakizuneko Don Beldurren erresuman, edo "Gabriel Aresti Eibarren" ipuineko ironia pun-



tuan; ez dago aparte "Indarkeriaren gainean" eta "Handia naizenean" izena daramaten kontakizunetatik eta horietan ageri den izu eta damutik, duda eta etsipen loriatsutik.

"Kafka Bilbon" liburu hau iradokizunez betea ageri da, behin errealitatea eta fikzioaren arteko muga hautsi, eta izan zena eta izan zitekeena bereizteari uko eginez gero.

Orrialdeak: 152.

Formatoa: 12x19 cm.

ISBN: 84-95589-48-6.

Prezioa: 11,50 euro.

Egin kontu !

Maiatzean zabalduko da Kazetagunea Txaramuntoko egoitzan

Maiatzean zabalduko dira Kazetagunearen ateak. Beste herri batzuetan egin bezalaxe, Eusko Jaurlaritzak eta Usurbilgo Udalak martxan jarri behar duten zerbitzu honekin teknologia berrietara hurbiltzeko aukera izango dugu.

Kazetagunea maiatzean hasiko da lanean. Internet mundura gerturatzeko aukera paregabea izango da hau. Doaneko zerbitzua izan arren, alde zurretik izena eman beharko da. Dena den, 18 urtez gorakoei mugatuta dago Kazetagunea.

Izena ematen duenari klabe edo pin bat emango zaio Kazetagunean sartu eta ordenagailuetan ibili ahal izateko. Bi aukera izango dira:

- Ikastaroetan parte hartu.
- Interneten nabigatu.

Ikastaroetarako zortzi ordenagailu jarriko dira eta nabigatzeko, berriz, lau.

Oinarritzko ezagutzak ikasteko 20 orduko ikastaroak antolatu dira. Goizez eta arratsaldez irekita izango dira Kazetagunearen ateak: goizez, 9:00etatik 13:00era. Arratsez, 16:00etatik 20:00etara.

J SE IZ U U UN NUE

Igeltseritza eta pintura

Talantuen berberena

Fotoak eta irudiak

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83



Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Tel: 943 36 04 66



EUSKALHEIKAZU ESIN U

EH U

urr r



GIPUZKOAKO U LI ZK ITZ GUZTIET N t N T ITZET N

DONOSTIA. DONOSTIAKO BARRUTIA

Pedro A. Baraibar. Askatasuna, 2, 1º.

Ezk.....9 – 16>>943431873

Aquiles Paternotre Suarez. Askatasuna, 3, 1.....9 – 13

// 16 – 19>>943426370

Jose Carlos Arnedo Ruiz. Churruca 14, 2.....9 – 13 //

16 – 19>>943426027

IRUN. BIDASOA-OIARTZUNGO BARRUTIA

J.luis Carvajal Garcia-Pando P. Colón, 22, 1º esk.....

9 -13>>943636017

Jesus Maria Sanza. Luis Mariano 10, 4º B - C.....9–14//15:30

–18:30>>943633185

ORERETA. BIDASOA-OIARTZUNGO BARRUTIA

M. Remedios Agirre. K. Mixelena

Plaza,solairubitarte..... 10 – 14>>943 516248

ORDIZIA. ORIAKO BARRUTIA

Ignacio Pagola Villar. Lapurdi ,19 – 13>>943885650

BEASAIN. ORIAKO BARRUTIA

Fernando Rodriguez Prieto. Andra Mari 11, 2

A.....9:30 – 13>>943160705

ZUMARRAGA. ORIAKO BARRUTIA

Antonio Pedro Mula Soto. Iparragirre, 7,

solairubitarte.....9–14//15:30 – 18>>943 721063

BERGARA. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Roberto Rafael Oliver Puertolas. Ibargarai, 20.....10–13//16

–17:30>>943 761073

EIBAR. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Dolores Garcia Aranaz. Bidebarrieta, 7.....10 - 13,30>>

943202022

AZKOITIA. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Maria Gemma Fernandez Alonso. Kale Nagusia, 58,

1. B.....10 – 14>>943 851258

F XISM I ES N ZENKI

SINADUREN BILKETARI BURUZKO ARGIPENETARAKO GUNEA

948 21 36 01 ● www.aubilgunea.org

DIRU LAGUNTZA BANCODÉVASCONIA 00954638170600206470

5 .

LETZ



Usurbilgo
Eusko

GIPUZKOAKO
BATZAR
NAGUSIETARAKO
HAUTAGAI
USURBILDARRA

LUISMARI ORMAETXEA SANTSIÑENA

" Hastera doan legealdian, Gipuzkoako Batzar Nagusiak, mende hasera

honetako lehentasunak eta oinarriak finkatuko ditu, Gipuzkoa Europako lurralde aurreratuenarikoaren parean jarri nahian. Zeregin honetan Usurbildarron ahotsak presentzia behar du."

" Azken urteetan Usurbilen agintzen egon direnak ez dira egon Gipuzkoan erabakiak hartzen diren lekuetan Usurbildarron beharrak defendatzen."

"Inguruko herrietan aurrerapenak ikusten ditugu; Usurbilen ordea geldotasuna."